

2002ko ekaina

6. zenbakia

# *Aikor!*

txorierriko aldizkaria

## TOTI MTZ. DE LEZEA

*Gaur egungo emakumea Erdi Aroan murgilduta*

Biba Xiberua! - Trenbide zaharra - Udabarriko jokoak - Behargintza



# DERIOKO JAIK GORA SANTIAGO !!!

## BEGO

ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUM BIOLOGIKOA  
ERA GUZTETAKO ESTENTSIOAK



Uribe kalea, 6 Bajo  
Tel. 94 454 27 97  
48160 - DERIO

Martitzenetik barikura, 9:00 - 19:00  
Zapatuetan 8:00 - 14:00  
Ordutegia egoki daiteke

Restaurante

## SAN ISIDRO

FINANCIA ETIAK OFIZIALAK ETA ETIAK GASTATZAKOAK  
ESKUNTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Kuxin galea

-Lentxo arretzak

-Jasotutako pertsonak

-Jasotutako pertsonak

-Jasotutako pertsonak

Teléfono 94 454 07 98  
Fax: 94 454 14 18

Mungialde Etorbidea, 17 35  
48160 DERIO



## José Martín Ugalde

PINTURA - PAPERA - DEKORAZIOA - IGELTSEROTZA

Gantxura Kalea, 21  
48160 DERIO

Tel. 944 545 145  
Móvil: 640 485 545



## LEIRE BEGOÑA

### ILEAPAINDEGIA

UNISEX ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUM BERTIKALA  
ESTETIKA  
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO



## LARRABETZU

## MUSIKA ESKOLA

Martxoan zabalik  
ikastegi homologatua

Erreiala, 7 Bederatzi

Tel. 94 454 70 66

48160-LARRABETZU

- |                     |              |                     |
|---------------------|--------------|---------------------|
| -HASIERA MUSIKALA   | -BOLONTZELA  | -PIANOA             |
| -HISKUNTZA MUSIKALA | -KONTRABAXUA | -KLARINETEA         |
| -KITARRA            | -KANTUA      | -GEHIGARRIAK        |
| -SONUA              | -ABESBATZA   | -ARMONIA            |
| -TXILORISTA         | -TXISTU      | -EGITURAK eta abar. |
| -BOLOINA            | -TROMBON     |                     |

Ikasturtearen hasieraz 2002ko irailean 15an - 3 urtetik hasita - helduentzako ikasleak

## GERIATRIKO INDAUTXU SIGLO XXI, S.A.



Zerbitzu enparantza  
DERIO

Tel.: 94 454 48 08

## M<sup>re</sup> JESUS INCHAUSTI GALLARZAGOTIA

### "ESTANKOIA"

Mungialde Etorbidea, 12  
Tel.: 94 454 15 41

48160 DERIO  
(Birkalea)



# HEZKUNTZA EDO IRAKASKUNTZA?

Zein da irakaslearen beharra? Irakastea edo hezitzea? Hiztegia bitute haxe topau dot: "Irakatsi: zerbaiten eza-guera eman, norbaiten ezagutza-multzoa handiagotu edo trebetasuna maila igo, bereziki ikasgaien azalpenaren bidez.", "Hezi: gizakia, bere ahalmen fisiko eta intelektualak garatuz gizabidea erakutsiz, gizartean bizitzeko prestatu eta gaitu."

Irakasleen helburua, izenak dinonez irakastea da, hau da, ikasleen, ume eta gazteen, ezagutza maila handitu; elkarbizitza-rako errespetua ahaztu barik.

Matematikako irakaslearen lehen helburua matematika irakastea da. Eragiketak ebazteko metodo desberdinak irakatsi,

ekuazioen ebazpena azaldu eta abar. Ikasgelan sortzen diren elkarbizitza arazo-ak konpondu behar dauz, arau minimo batzuen adierazle eta eroale izanik.

Gurasoen lana seme-alabak hezitzea da. Honetarako ez dago ez karnetarik, ez ikasketarik, ez ezer. Lan gatxa, bai, behar-bada dagoen lanik gatxena, baina guraso izateak hau dakar.

Gurasoek seme-alabak gizarteratu behar dabez, errespetua eta jokamolde artezak irakatsiz. Gurasoek irakasleengan itzi dabe lan hau. Denbora falta dala, beharra dala, umeek ez hasarraztea dala...Seme-alaba bat ez galtzearen sarri-tan pertsona bat galtzen da.

Gogorra izan arren gaurko irakasle eta hezitzaile onenak kutxatxo batean agertzen dira, "Gran Hermano" eta bere primo guztiak. Hau idatzi, eta askoz gehia-go pentsatu ostean hemen joatzue neure gogoeta: irakasleek irakatsi eta gurasoek hezi behar dabe.



Testua: Asier Oruetxebarria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarte  
Federazioa (Lagatu, Zorritzeta, Arrekikili)  
Tf.: 94 452 34 47  
e-posta: totoan@topagunea.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Maite Aranburu

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren,  
Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Iñigo Hernani, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia,  
Amagoia Guezuraga, Asier Oruetxebarria.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Belen Gana, Oihana Astobieta,  
Fernando Olabarrieta, Puri Martinez, Lurdes Lasuen, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi).

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra  
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi  
Maketatzailea: Ainara Torres  
Inprimategia: Gertu  
Ale kopurua: 4.750  
Lege gordailua: BI 137-02 ISBN 1578-9322

diruz lagundutako aldizkaria

ZER

NON

|                                             |    |
|---------------------------------------------|----|
| -Eritxia.....                               | 3  |
| -Laburrak eta albisteak.....                | 4  |
| -Erreportajea                               |    |
| Toti Mtz. de Lezea.....                     | 10 |
| -Zer deritzozu.....                         | 13 |
| -Biba Xiberua!.....                         | 14 |
| -Lezamatik Bilbora trenbide zaharretik..... | 16 |
| -Baserri mundua.....                        | 18 |
| -Zientzia eta Teknologia.....               | 19 |
| -Udabarriko jokoak.....                     | 20 |
| -Behargintza Txorierri.....                 | 22 |
| -Sukaldaritza.....                          | 24 |
| -Denbora pasa.....                          | 25 |
| -Agenda.....                                | 26 |

# TXORIERRIK 19-AN ERANTZUN ZION GOBERNUARI ELA eta LABen ustez, enpresa eta langileen %80k egin dute bat 19ko grebarekin

PPren gobernuak onartutako langabeziaren erreformaren kontra azaldu ziren Txorierriko herritar gehienak. Gehiengo sindikalak (ELA eta LAB) 19rako deitutako greba honetan euskal lan esparruaren aldeko aldarrikapenak egin ziren, hurrengo egunerako deitutako greban ez bezala.

Dudarik gabe, horren adibiderik argiena Txorierriko errepide-etan ikusi zen. Ekainaren 19an trafiko gutxi egon zen; 20an, berriz, auto ilara luzeak izan ziren. Hura termometroetako bat izan daiteke, baina beste batzuk ere izan ziran. Kaleetan, jende gutxi zebilen gure herrietan.

Erantzuna sektoreetan eta herriz herri aztertu ezker, Larrabetzun eta Derion ia erabatekoa izan zela esan dezakegu, bai industrian, merkataritzan zein irakaskuntzan.

Txorierriko ELA eta LAB sindikatueta arduradunen arabera, grebak %80ko jarraipena izan zuen gure eskualdean ekainaren 19an. Langilerik gehien duten enpresen artean aipatzekoak dira Larrabetzuko industrialdea, Lezaman MTC eta Sachs. Zamudion Ericsson, ITP, Matricería Deusto, Irurak, Gepce eta Printek. Derion, aldiz, Dibal eta Medex, eta Sondikan Electricidad Martin.

Zamudio, Sondika eta Loiuko industrialdeetan erantzuna handia izan zen. Ikusi besterik ez zegoen tailer eta enpresetako atea itxita, poligonoetan aparkatzeko tokia –normalean hain garesti dagoena zenbat-gura zegoela 19an.

Kaleetatik ez zegoen kamioi eta furgoneta trafikorik. Komertzioetan gehienek euren atea itxi zituzten; zabaldu zutenetako asko ixten joan ziren eguna aurrera joan ahala. Antzeko zerbait gertatu zen Lezaman. Hemen ere, enpresa gehienek greba egin zuten 19an.



Errepidean nabaritu zen 19ko grebak izan zuen erantzuna



Hurrengo egunean ohiko karabanak izan genituen



Sektore guztietan izan zuen erantzun zabala



# COPISTERÍA

**PRODUCTOS**

- REPRODUCCIÓN
- COLORES
- FOTOCOPIAS
- IMPRESIÓN
- DEBES

- COPIAS DE PLANOS HASTA 1,5 m DE ANCHO
- REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
- PLANTEADO Y ESCALADO DE PLANOS
- REPRODUCCIONES EN COLOR HASTA DIN A2
- CARTELES, POSTERS, PLANOS, FOTOS, etc.
- OFFSET (Pasantes, Albaranes, Formularios, etc)
- IMPRESIÓN RÁPIDA
- (Tarjetas de visita, Banners, Folios personalizados, etc)
- IMPRESIÓN DIGITAL Y PLASTIFICACIONES
- COMPUJET Y PLANTILLAS
- DISEÑO E IMAGEN DE EMPRESA
- INFORMÁTICA

**SERVICIO DE RECOGIDA Y ENTREGA GRATUITO A EMPRESAS**

**SONDIRA**  
Erremontari, 20 Local  
TEL: 94.453.67.91

**URDULIZ**  
Edificio Masadina de la Peña  
TEL: 94.676.01.46

**URDULIZ (Almacén)**  
Bailueta, 9 1ª Planta D  
TEL: 94.430.48.18

Email: [proplanos@zazael.es](mailto:proplanos@zazael.es) // Web: [proplanos.euskalnet.net](http://proplanos.euskalnet.net)

# OHE-ZERUEN BILA

Maiatzaren 21ean, Euskal Herriko altzari eta objektu bereziei buruzko erakusketa zabaldu zen Bilboko Euskal Etnografia Museoan. Bertan, ohe-zero bat dago ikusgai, XIX. mendean gaztaina eta pinu zur polikromatuz eginikoa.

Era horretako oheak oso bitxiak dira, eta haien egiturak eta dekorazioak argi erakusten dute zein garapen historiko izan duen herri altzarigintzak eta zelako gaitasuna izan duen ingurunera egokitzeko.

Gortinaz eta pabilioiz estalitako oheak XVI. mendea baino lehenagokoak dira Euskal Herrian, eta lotan zegoena hotzetik, hautsetik zein familiako gainontzeko kideengandik isolatzeko jartzen ziren.

Erakusketaren arduradunetarikoa bat Amaia Mujika da. Beronek 1990az geroztik dihardu ohe berezi hauek ikertzen, haien jatorria eta nondik norakoak jakitearren.

Haren ustez, era horretako errezedun ohe margotuak Bizkaiko Uribe Kosta eskualdekoak dira, eta ezagutzen diren guztiak bertoko arotzek eginikoak dira.

Altzari hori emakumeen arreoan eroaten zen beste gauza askorekin batera. Arrazoi horregatik, eskualde honetatik kanpo ere aurkitu da bat edo beste.

Museoko ikertzaileek Larrabetzun topatu zuten horrelako ohe bat, eta, euren iritziz, Txorierrin ohe-zero gehiago geratuko dira oraindik. Horregatik, inork horrelako oherik ikusi badu edo badauka, Bilboko Euskal Etnografia Museoari jakinaraztea gura lukete.



Emakumeak, ezkontzean, bere ohea eroaten zuen eta, ohitura horren ondorioz, baserri askotan bi eta hiru ohe ere aurkitu dira, antzeko estruktura eta dekorazioa eduki arren, eskua eta kronologia desberdinak dituztela igartzen zaienak. Ohe hau eta Museoan dauden beste batzuk Arrietako Olatxu auzoko Ballenta baserrikoak ziren, eta jabeek 1975era arte erabili zituzten.

Oheon alboan, eta hormatik esekita, apala eta teilatutuxoa zituzten ohol polikromatuak jarri ohi ziren. Ohol horiek eguzkia izaten zuten motibo nagusizat eta errosarioa eta otoitz-liburua uzteko erabiltzen zituzten.

Ohe-Zeru hauei buruzko informazioa izan ezkerro, jarri zaitez harremanetan Amaia Mujikarekin Euskal Arkeologia, Etnografia Eta Kondaira Museora deituz

María Muñoz kalea, z/g.  
48005. BILBAO  
Telefonoa: 94 - 415.54.23 / 416.92.46  
<http://euskal-museoa.org>  
E-mail: [museoa@euskal-museoa.org](mailto:museoa@euskal-museoa.org)

## Zamudioko udalak 17 etxebizitza adjudikatuko ditu

Zamudioztarrak uztailaren 19ra arte dauke zabalik Uribebarriko 17 etxebizitzaren (euren garaje eta trasteroakaz) adjudikazioan parte hartzeko epea. Eurretatik 8 jabetzan izango dira 72,67 eta 79,07 metro bitartekoak eta salneurria 54.091,09 eta 58.899,19 euro bitartekoak. Beste 8, errentan, erosteko aukeragaz, neurri bardinekoak, hilero 143,62 eurotik 156,04ra bitarteko kuota ordainduz eta beste etxebizitza bat jabetzan, elbarri batentzat. Adjudikazioaren oinarriak eta bete beharreko baldintzak udal bulegoetan dagoz ikusgai.

## Santiago Jaiak, Derio

### Uztailak 24

19.30 Txupinazoa eta jaien hasiera.  
20.30 Txitxiburruntzi, suaren inguruan.  
Bakoitzak bere afaria prestatuko du..  
00.00 Gaupasa, Bizargorri taldeagaz

### Uztailak 25

11.30 Meza nagusia, San Kristobal eta Santiago santuen omenez  
12.30 Triki poteoa  
14.00 Sukalki txapelketa  
19.30 Moto-kros erakusketa  
22.30 Diskoteka

### Uztailak 26

12.30 Derioko Lainomemendi dantza taldearen erakustaldia  
17.30 Umeen jaialdia eta mozzorro lehiaketa  
20.00 Tortilla txapelketa  
22.00 Azken traka

### Uztailak 30

20.30 Kalejira  
00.00 Gau dantza Urgabe taldeagaz

### Uztailak 31

12.30 Omenaldia, herriko nagusiei  
12.30 Nazioarteko dantza ikuskizuna  
14.30 Herri bazkaria  
19.30 Idi probak  
21.30 Voces Mejicanas taldearen emanaldia  
23.00 Azken traka eta jaien amaiera

**BIDE-GORRI**  
ERA ASKOTAKO PINTAKOAK - PLATER KOMBINATUAK  
TAMUDIN KALEA, 9  
48100 TAMUDIN (Bizkaia) Tel.: 94 452 21 50

**HORTZ - KLINIKA**  
*Jasone Azurmendi Garai*  
Palmierien Plazara, 1 - 1º A  
48100  
Telefonoa: 94 452 21 50

**CAFETERIA**  
**IAZI**  
Eguneko menua eta  
Menu berezia  
JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 452 29 56 - DERIO (Bizkaia)

**ARTIZAR**  
MARKOA JARTZEKO TALFERA  
Justo Aguirre, 3  
Tfn. 94 453 01 50 48150 SONDICA  
Bizkaia

**luz zamudio**  
ARGI APARATUAK  
Mugaketa, 1 (1. solairu) Telefonoa eta Fax: 94 452 11 60 - 48170 Zamudio (Bizkaia)

**GUEDAN**  
servicios deportivos, s.a.  
ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA  
Mugaketa, 1 (1. solairu) Telefonoa eta Fax: 94 452 11 60 - 48170 Zamudio (Bizkaia)  
Telefonoa 94 452 11 60 - Fax 94 452 11 62  
Zamudioko Polideportiboa: Telefonoa 94 452 21 30 - Fax 94 452 30 74



# TXORIERRI BIDERIK BIDE UNTZA MENDI TALDEAGAZ

Larrabetzutik, Lezamatik..., Zamudio, Derio..., Loiu, Sondikatik... Gure Txorierri honetan badaukaguz hainbat toki eta bide izadiagaz bat egiteko. Gure inguruan zenbat dira, bai nagia ren nagiaz bai paraje dagoalako (eta badakizu, asago dagoana, beti gustorago), ezagutu barik doguzan estarta eta gurdibideak, mendiak eta aldatz gorak eta aldatz beherak, ur putzu eta errekek.

Bizkaiko lurraldean, esan beharrik be ez dago, edonondik daukaguz asteburu edo domeka goiz bat emoteko leku aproposak. Zenbat eta zenbat izango dira gure oinak zapaldu bako mendi eta ibilbideak!

## Untza Mendi Taldea

Derioko Untza Mendi Taldea geure lurraldeko izadiak eskeintzen deuskuzan bitxiekaz gozatzeko eta inguruan daukaguzan altxorrak deskubritzeko gogoak eukien batzuek sortu eben. Derion eratu zan, 1980an, Batzokiko jentearen ekimenez, eta hantxe jarraitzen dau gaur be. Izena, Derion dagoan mendi bateri zor deuto. Hasieran derioztarrak baino ez baegozan be, gaurko egunean larrabetzuar eta zamudioztar batzuk be badagoz taldean.

70 bazkide daukazan talde honek astero antolatzen dau urteeraren bat. Urteko aste guztietan (garagarrean eta abuztuan izan ezean), domeketan batzen dira, goizeko 8etan eta Batzokiaren aurrean. Arratsaldeko ordu biak arte hortik zehar ibiltzen dira. Urteera gehienak Bizkaitik diran arren, urtean birritan Arabako eta Gipuzkoako mendietara be joaten dira.

Burgoseko mendietako edurrak be ezagunak dabez. Taldekideen autoetan joaten dira normalean, edurretara eta urrutiko lekuetara doazenean izan ezik. Orduan, autobusez. Urteeretan, batz bestea, 20 bazkidek osotutako taldea batzen da, euren artean gizonak andrak baino gehiago diralarik.

Antolaketaren aldetik be ez dabiz bape txarto. Urte hasieran batzar orokor bat egiten dabe, eta bertan, beste gai batzuren artean, bazkideek ordaindu behar daben kuota erabagitzen da. 2002 urtean 30 eurokoa da kuota hau. Euren aktibidadeak finantzatzeko, kuotez aparte, Derioko Udalak Kirol Alkarte lez emon dako dirulaguntzea daukie.

Lehenago esan dogunez, astero urteetan dabe mendirik mendi. Baina honek ez dau esan gura beste ezebe egiten ez dabenik. Herriko jaietan (San Isidroetan) ibilaldi neurtua antolatzen dabe, gabonetako hamabostaldi kulturalaren barruan Gorbeiarako igoerea abenduaren 31n (igaz 80 lagun joan ziran, bueltan Pagomakurreko ostatuan bazkari eta guzti), urriko lehenengo hamabostaldian asteburu pasa doaz...

Kirol Alkarte bat osotu arren ez dagoz federatuta, baina ez dabe baztertuta segurtasunaren eta arriskuen alderdia. Hau dala eta, Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Mendiko arriskuen prebentzinorako" ikastaroa eta Gurutze Gorriak antolatutako "Primeros Auxilios" ikastaroa eginda dauka alkarteko hainbatek.

Bizkaiko beste mendi talde batzuek hartuemon estuak daukiez. Hau dala eta, Mungiaiko Andui, Sopelako Urko ta Algortako Itxartu mendi taldeakaz urtean zehar herriotan egingo diran ibilaldi neurtuen egutegia zehazten dabe. Aurten, Deriokoa, maiatzaren 12an egin da, herriko jaien plato fuerte modura.

Testua: Fernando Larrondo



**LEANDRO LANDETA**



**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**  
Oiz Kalca, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



**S.A.T. LEGY**  
LEZAMA  
Geltokieta Auzoa, 36  
48196 LEZAMA - Bizkaia  
Tel.: 94 455 61 98  
Fax: 94 455 66 17

**KARMELOA**  
BERTOKO OKELA  
ETXIKO PRODUKTUAK:



- Txortokak
- Odoloskak
- Lentokak
- Mihio
- Tripakiak
- I'per txakak
- etabar.

Urkiola kalca, 4  
Tfnoa: 94 454 30 48  
011600

## ZURT TALDEAK BERE LEHEN DISKOA PLAZARATU BERRI DU

Diskoan aurki daitezkeen 11 abestien artean, 'Itxaropena' (CDri izena ematen diona), 'Aski da', 'Bizitza maite dut' eta 'Delilah' kantak daude. ZURT taldekoek urte bi baino ez daramatzate elkarrekin lanean, eta bigarren diskoa argitaratzekotan daude urte amaierarako.

Musika talde rockero hau Iñaki Susunaga zamudioztarrak, Jabi Arruabarrenak, Iker Eskurzak, Jon Liébanak eta Edu Fernandezek osatzen dute.



Zurt taldeko partaideak

## ZAMUDIOKO KAMARA KORALA NAZIOARTEKO KONGRESUAN

Zamudioko Kamara Korala 1987an sortu zen Iratxe Guezuragaren eskutik (gaur egun bera da zuzendari). Harrezkero, Bizkaiko eta Estatuko hainbat herritan eta koral ekitalditan hartu dute parte.

Korala osatzen duten 14 emakumeak ahots zuri motakoak dira eta uztailaren 10etik 19ra bitartean Lyonen izango dira Nazioarteko Kongresuan parte hartzen.



Zamudioko Kamara Koraleko partaideak



Errementeñi Kalea, 22  
Tfno.: 94 453 57 54  
Fax: 94 453 58 31  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**ALDIZKARIA JASO  
GURA DUENAK DEITU  
BAINO EZ DU EGIN  
BEHAR**

**TLFNOA: 94 452 34 47**

**EDO**

**E-MAILEZ ESKATU  
aikortxori@yahoo.es**

## ARTXANDAKO TUNELAK

# Josu Bergara Bizkaiko diputatu nagusiak maiatzaren 24an zabaldu zituen ofizialki Artxandako hiru tunelak.

Artxandako hiru tunelen 3.000 metroetatik egunero 30.000 ibilgailu inguru pasako direla uste da. Tunelekin, Bilbok erraztasun handiagoak izango ditu hirigunea gehiago zabaltzeko, eta, beste alde batetik, Txorierriko lotura arinago egingo da.

Bilboko hiriaren eta aireportuaren edo Txorierriko autobide berriaren arteko lotura arinago eta erosoago egingo da. Getxoko kostaldetik A-8 autobidearen lotunera -Erletxen- bitartean luzatzen den Txorierriko autobidearekiko lotura Artxandako mendia-rien iparraldetik egin da, Txorierriko tunelen ahoen ondoan.

Salbe-Ugasko tuneletik joanez gero, Begoña aldetik datozen edo Begoña aldera doazen ibilgailuek ez dute pasatu behar izango ez Mazarredo zumarkaletik (Guggenheim museoaren paretik) ez Deustuko zubitik. Beste alde batetik, Txorierriin dauden Artxandako Tuneletako hamabost ordainketa-bideak teleordainketa-sistema daukate mota guztietako ibilgailuetarako.

Sistema horrekin gidariak ez du autoa gerarazi behar kabine- tan bidesaria ordaintzeko. Ordainketa-bidean dagoen antena batek identifikatzen du TAG izeneko gailua daraman autoa eta bidea irekitzen dio.

TAG txartela txartel elektronikoa bat da, kreditu-txartel baten tamainakoa eta zentimetro bateko lodierakoa. Txartel hori autoa- ren aurreko kristalaren behe eta ezker aldeko ertzean jartzen da autoeransgailu baten laguntzaz.

### Tarifak eta deskontuak:

Trafiko gutxi edo askoko orduen arabera ezarriko dira tarifak eta, batez ere, bertatik igarotzen den bidaia kopuruaren arabera. Horrela, hobarien ehuneko 60rainoko deskontuak egongo dira.

Deskontuak hilerokoak izango dira. Horiek lortu ahal izateko, sistema elektronikoa bakarrezekin ordaindu beharko da.

Tuneletan bidesariaren teleordainketa sistema erabiltzea ero- soena da, eta BBK, Euskadiko Kutxa edo Kutxako edozein bule- gotan eskura daiteke horretarako behar den TAG txartela.

Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, tunelek segurtasun osoa eskaini gura dute, eta horretarako gaur egun dauden bitarteko modernoek jarri dira bertan. Bitarteko horiek tuneletako kontrol-eraikinetik bertatik kontrolatu eta koordi- natzen dira.



**CENTRO LASAI**

**LASAI**



Tratamien- to:  
- Ultrasonido (Ultrasonido)  
- Mielodermatoc-  
- Osteopatia  
- Masaje  
- Electroterapia

Clínica especializada con:  
- Chis. de aguja (Inyección)  
- Empujes de la zona  
- Chis. de aguja  
- Parafarmacia

Clínica LASAI (Bilbao)  
Tel: 94 411 1076  
Móvil: 657 14 24 05  
Fax: 94 411 1076  
Email: LASAI@arrakis.es

**KRIKETA**

*serigrafía*

~ LARRABETZU ~

Tel: 94-4657135

CMISCTAS - PARRAS - LARRABETZU - PARRAS  
c/ma. Sanjoan de los Rios

**SUINOR COMPUTER S.L.**

Torre Aragoi - Industrialdea-8 blokea-3.naketa-ZAMUDIO (Bizkaia)

**BARAKALDO INFORMATIKA**  
Miranda Etorbidea 3  
48902 BARAKALDO-BIZKAIA  
Tel/Fax: 94 4781643

**LEIOA INFORMATIKA**  
Iparragire Etorbidea 58  
48040 LEIOA-BIZKAIA  
Tel/Fax: 94 4804838  
Fax: 94 4807145

e-mail: rocco@arrakis.es



# GIRO POLITA IZAN ZAN ZAMUDION LAGATZU EGUNEAN Aikor! aldizkariak euskera alkartearen saria jaso eban

Ekainaren 23an, domekaz, Lagatzu eguna ospatu zan laugarren aldiz. Goizetik hasi ziran Lagatzuko kideak frontoia prestatzen: mahaia eta aulkiak ipintzen, urtean zehar egindako ekintzen erakustaldia jartzen... Lehenengo, txistulariek kalejira egin eben herritik, 12.30ak inguruan jendea batzen hasi zan fanfarre, trikitilari eta kantariakaz, herriko tabernetatik buelta egiteko.

Bazkalaurretik, urtero egiten dan moduan, euskararen aldeko lanean nabarmendutako pertsona edo taldeei egin jaken errekonozimendua. Lehenengo urtean, Iñaki Gaminde eta Zamudio

Berbarik Berba liburuko informanteak izan ziran. Hurrengo urtean, Mari Carmen Mendiguren eta Mari Carmen Rubin de Celis maistrak. Aurten, Txorierrri guztiko euskaldunentzat hain garrantzitsua dan aldizkaria plazaratzeagatik Aikor!-ek jaso eban aipamena eta saria. Eskertzekoa, benetan, gure aldetik Lagatzuren aitoren hau.

300 lagun inguru batu ziran herri bazkarian, giro ezin hobean. Bazkalostean kantuen txanda izan zan eta giroa berotzen joan zan, dantzaldiari leku itxiz. San Juan suagaz jarraitu eban jaiak.



## Txanbi Venezuelatik espainiaratua

Juan Bittor Galarza "Txanbi" Venezuelen atxilotu eta egun batetik bestera bidali zuten Caracasetik Madrilera. Ezusteko itzela bera eta bere familiarentzat, eta Madrilan Entzutegi Nazionaletik igaro barik eroan zuten kartzelara. Venezuelen Euskal Etxetako lagunak eta giza eskubideen aldeko hainbat taldek salatu zuten Txanbiren atxiloteta eta estradizioa. Orain Valdemoroko kartzelan dago Txanbi, animoz ondo eta laster Larrabetzura etortzeko gogoz.

## Hautzaindegia eskatzeko sinadura bilketa

0-3 urteko umeen ziklorako hautzaindegia eskatzu firma biltzen hasi dira ume jaio barrien gurasoak. Eusko Jaurlaritzak ume guztientzako hautzaindegi zerbitzua egongo zala bota bazuen be, Larrabetzun guraso talde bat mugitzen hasi da. Izan be, aurten aspaldiko partez inozko ume gehien jaio da herrian. Lehenengo sei hilabeteetan 15 ume baino gehiago jaio da, eta horregatik datozen kurtsoetarako ume txikientzako tokia eskatu gurean dabiz Larrabetzuko eskolan.

## Andra Mari kalea hankaz gora udan

Udan obrak izango dira Larrabetzuko kale nagusian. Hori dala eta, udalak orain arte batzar batzuk egin ditu auzokide, tabernari eta komertzioetako arduradunakaz. Uda guztian kalea altxatuta egongo da eta nahiko enbarazu egingo die inguruko auzoei. Errepidea itxita egongo da, eta ibilgailuak inguruko bideetatik ibili beharko dira, kamioi eta autobusak barriz, Lezamatik bueltan etorriko dira.

## Topaguneak mintegia antolatu du uztailaren 4 eta 11rako

Euskara Elkartearen Topagunea iazko uztailetik hausnarketa prozesu batean murgilduta dago, federazioaren Epe Ertaineko Plana lantzen. Topagunearen egiturari eta norabideari buruzko hausnarketa egingo da. Mintegiko gaien artean honako hauek jorratuko dira besteak beste: Topagunearen zeregina, baliabideak eta finantzaketa eta etorkizunera begirako ildoak. Mintegia Durangoko Kurutzia ikastolan egingo da. Lehen bilera uztailaren 4an egingo da, 15.30etan; bigarrena, uztailaren 11n, toki eta ordu berean.

**LEKE'S** JATETXEA  
S.L.R.

Sanitizatu / 48170 ZAMUDIO  
Telefonoa: 944 543 894 Bilbo

**GRUPO "ACOFISA" ASESORES**  
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA

Luis Fernando Aguirre

**hotela**  
**jatetxea**  
**aretxarte**

Teknologi Parkea - Erakuntza, 200  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
faxa: 94 403 69 01  
e-mail: hotel@aretxarte.com  
e-mail: reservas@aretxarte.com  
www.aretxarte.com

**HOTELA**  
**JATETXEA**  
**ARETXARTE**

Oliver Cruzgandutxoa  
Arreaga sarea 62  
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)  
Telefonoa: 94 403 69 00  
Faxa: 94 403 69 01  
E-mail: hotel\_aretxarte@telefonos.es

**Makoa** Hadaurrenaregik, 1 - Ibañeta  
Telefonoa: 94 403 33 28  
Faxa: 94 403 50  
48170 ZAMUDIO - Bizkaia

**Nervion**, 3 - BP - 43pl. 15-2  
Telefonoa: 94 423 42 42  
Faxa: 94 423 61 70  
48101 HII HALL

# TOTI

## Gaur egungo emakumea Erdi Aroan murgilduta

Testua: Iratxe Mugire

# MARTINEZ de LEZEA



Larrabetzuko idazle honek, egunero sei edo hamar orri idazten dituela dio, ordenagailuaren aurrean ematen dituen bost-zazpi orduetan. “Ez dago argitalexterik nirekin ahal duenik”, diosku, eta sinistu egin behar zaio, azkenaldian leku guztietatik egiten ari zaizkiolako eskaintzak.

Erdi Aroa gogorarazten duen egongela handi batean, berarekin hitz egiten gabiltzan bitartean, telefonoak jotzen du irrati batetik deika zuzeneko elkarrizketa eskatzeko, beheko suaren eta gure artetik etxeko txakurrak eta katuak pasatzen dira, gerotxoago kaleko atea zabaltzen da eta, kamioiak entzuten direnez, altxatu egiten da atea ixteko, bide batez garagardorik edo nahi ote dugun galdetzen digu, eta Aritz semea, Alberto senarra, semearen laguna eta txakur guztiak aurkezten dizkigu.

Andrak publikazioan parte hartzen du, eta bere esanetan ez du idazten gai

***“Oso zaila da emakumezko baten izena aurkitzea leku eta estamentu guztietan. Berdin gertatzen da Euskal Herrian ere, matriarkatuaz hainbeste hitz egiten den arren”***

feministen inguruan, emakumezkoei buruz baizik. Totiri benetan gustatzen zaiona idatzita ez dagoen historia idaztea da, galtzailena, liburuetan agertzen ez dena.

**Sarritan ateratzen duzu emakumezkoaren pertsonaia Erdi Aroan.**

Hain zuzen, gaur egungo informazio falta orekatzeko, izan ere, oso zaila da emakumezko baten izena aurkitzea leku eta estamentu guztietan. Berdin gertatzen da Euskal Herrian ere, matriarkatuaz hainbeste hitz egiten den arren.

Hala ere, badakigu Erdi Aroan alaba guztiek aitaren lanbidea izaten zutela: margolariak, eskultoreak... baina gero, edo euren aiten izenak agertzen ziren, edo ez zen izenik agertzen. Eta non daude emakumeak, orduan? Zeren egon beharko zuten, ezta?

Eta egon bazeuden: laborarien amak eta emazteak, banderizoenak, arrantzaleenak, baita Hondarribian frantsesen kontra borrokatzen zirenak ere (hauek bai aipatzen dira, harresien defendatzaile gisa)...

Hor daude beti, momenturo, eta gure indarra edo gure boterea hortxe dago hain zuzen ere, ez ateratzean, eta hor egotean, eta agintzean.

***“Nik betidanik idatzi dut, hori zen eskolan neukan nota on bakarra, erredakzio, ipuin eta horrelakoena”***

**Betidanik idatzi duzu, edo noiz oroitzen duzu hasi zinela idazten?**

Nik betidanik idatzi dut, hori zen eskolan neukan nota on bakarra, erredakzio, ipuin eta horrelakoena.

Eskuz idaztea ere asko gustatu izan zait, kaligrafia egitea (gaur Erdi Aroko kaligrafia egiten dut idazluma eta tintaz), eta oso gustukoa nuen liburu eta olerki zatiak kopiatzea, baita egunerokoak, pentsamenduak, amodiozko gutunak (gero bidaltzen ez nituenak)...

Antzerki eta telebistarako gidoiak ere idatzi izan ditut. Baina liburuena oso berria da.


Lagun batek desafio egin zidan, alegia, ezingo nuela idatzi nobela bat, zerbait luzea, eta ideia eman zidan. Gainera nobela historikoa betidanik gustatu izan zaidanez, eta hemen geureari buruz oso







2001.ean argitaratua



2002.ean argitaratua

***“Eta ideia argi bat daukadanean idazten hasten naiz. Eta gero lantzean behin gelditu egin behar dut datuak konprobatu edo alderatzeko, dataren bat, gertaera konkretu bat..”***

larik laguntzen didate, niretzat oso gauza polita eta eskargarria dena. Eta begiratu, gauza oso simple bat badago, frogatu ezin dena, hor asmatu egiten dut nik.

Gure aitak esaten zuen Adanek eta Evak euskaraz hitz egiten zutela, eta orduan esaten genion: “Aita, pasatu egiten zara”, eta berak ezetz. Euskaraz hitz egiten zutenik ezin da frogatu. Baina frantsesa, gaztelania, latina..., hitz egiten ez zutela, hori bai frogatu daitekeela.

Frogatu daitekeena ez zait burutik pasatzen faltsutzea, baina frogatu ezin daitekeena... Nobelista naiz, utzi historia historialariei!

**Inoiz hurbileko pertsona edo ezagun bat hartu duzu oinarritzat pertsonaia bat eratzeko?**

Printzipioz ez, eta orokorrean bai. Ez dut hartu pertsona bat eta deskribatu, baina orokorrean ezagutzen duzun jendearengan oinarritzen zara. Agian, momenturen baten arreta deitu dizun pertsona baten ezaugarriak hartzen dituzu.

Hala ere, ez ditut asko deskribatzen pertsonaiak, alde batetik ez zaidalako interesatzen deskribatzea eta, bestaldekik, pentsatzen dudalako irakurleak ere zerbait jarri behar duela bere aldetik eta pertsonaia baten aurpegia imajinatu behar duela.

**Aurretiaz aukeratzen duzu musika?**

Ez, gorputzak eskatzen dit, liburu bakoitzak musika bat dauka, adibidez asturren inguruan hitz egingo badut musika zelta behar dut, gudarien inguruan hitz egitera banoa, oster, badut beste bat.

Eta liburu osoan disko bat edo bi baino ez dut erabiltzen, etengabe errepikatzen direnak, gustuko ez dudana abestiren bat kentzen dut eta horrela errepikatzen dira.

**Aldez aurretik prestatzen duzu gidoi osoa?**

Ez, argumentua bera bakarrik irteten doa. Gainera, oso dibertigarria da, ez baitut gidoirik egiten aurretiaz.

Badakit zertaz hitz egin nahi dudana, baina besterik ez; orduan gaiari buruz irakurtzen hasten naiz, ideari eta gaiari buruz.

Eta ideia argi bat daukadanean idazten hasten naiz. Eta gero lantzean behin gelditu egin behar dut datuak konprobatu edo alderatzeko, dataren bat, gertaera konkretu bat...

**Ez zaizkizu kilometroak eskapatzen milak direnean, edo horrelakoak...**

Ez, baina bai patatak, artean hemen halakorik ez zegoenean. Eta artoa ere bai. Nahiko adi egoten naiz (zerrenda bat daukat Ameriketatik etorritako produktuekin), baina hala ere...

Original batean jarri nuen: “...y se pusieron las botas comiendo un pavo...”, eta lagun batek irakurri zuen eta esan zidan garai hartan ez zegoela indioilarrik, eta “pavo” jarri beharrean “pato” jarri nuen eta konponduta.

**Urtero lege, ekainean Bilboko Liburu Azoka egin zen Areatzako parkean.**

Liburuak salerosteaz gainera, azoka honek omenaldiak egiten dizkie gehien saltzen duten idazleei. Horrela, bada, aurtun Urrezko Idazluma sari nagusia Juan San Martini egokitu zaio. Zilarrezkoa, berriz, Toti Martínez de Lezeak jaso du, Los señores de la guerra izan baitzen iazko libururik salduena. Euskarazko kategorian, Jon Arretxeri eman diote Zazpikale saria, Zazpi kolore liburuak lortu duen arrakastagatik. Bestalde, Daniel Innerarityk Unamuno saria hartu du.



**Nocho & Aitziber Birtxinaga**

Penetrakoa, 6  
48176 ZAMUDIO

Telefono: 94 403 72 81

SLINDATZUTERKIA  
KIRUZUAKU ZARKUEIA  
1995-1996



**BIRITXI**  
Peluqueria y Estética

Penetrakoa, 6  
48176 ZAMUDIO

Tel: 94 403 72 80  
94 403 72 82



**Ganix**  
Ganixak - Ganixak

Gemikako Arbola Etorbidea, 2  
(sarrera Goiko Kuletik)  
Tfnax.: 94 454 20 13  
48160 DERIO (Bizkai)



# BADAUKAZU IRAKURTZEKO OHITURARIK?



## Lourdes Nuñez

Nire eskuetan jausten den guztia irakurtzen dut! Nobela luzeak, laburragoak...generoan ere ez dut asko erreparatzen. Hori bai, liburu bat irakurtzen hasi baino lehenago, aurretik irakurrita daukan norbaiti gomendioa eskatzen diot, badaezpada!

## Inhar Astorkiza

Mota askotako liburuak irakurtzen ditut, gehienbat abenturakoak. Harry Potterren liburuak asko gustatzen zaizkit. Gainera, liburuari buruzko filma ere ikusita daukat! Daniel el Traviesori buruzko liburu asko ere irakurri ditut.



## Lander Aretxabaleta

Eskolan bidaltzen dizkidaten liburuak eta kontuak irakurtzen ditut. Harry Potter da gehien gustatzen zaidan pertsonaia, baina liburu luzeegia da nik irakurtzeko.

## Olatz Diez

Asko irakurtzeko ohitura daukat, misteriozko nobelak gehienbat. Agatha Christie-ren liburuak ditut gustukoen, suspensez beterik daude eta di-da irakurtzekoak dira.



## Jokin Olabarrieta

Ez dut asko irakurtzen. Askoz jota, autoei buruzko aldizkari-  
ren bat edo liburu arinen bat.

## Diego Aranburu

Ez naiz oso liburuzalea, baina, noizean behin liburu on bat irakurtzen dut. Normalean, Erdi Aroan oinarritutako nobelak gustatzen zaizkit, Ken Folleten 'Los pilares de la tierra' bezalakoak.



Derio Etxebizitza polita alokatzen dut. Deitu 944540000 arratsaldeko 18.00etatik aurrera. 300 euro hilero.

Zorionak Sondikako Andoniri bere izeko Marinen partez. Zorionak eta gogoratu nitaz zure 7. urtebetetzean.

Zaldi eder eta lerdena salgai. Deitu 944540000 arratsaldeko 18.00etatik aurrera. 1.500 euro. Zure bizitza alaituko du.

Nissan Primera salgai. Matrikula HJK-0000. hiru urtekoa, egoera ezin hobea. 3.000 euro. Deitu 944540000era gaez.

Lan eskaintza. Igeltsero ofizial autonomoak behar dira Zamudion. 666000000. Soldata eta komisio adostuak.

*Atal hau Txorierriko merkatu txikia izango da. Ezer badaukazu saltzeko, erosteko, edo beste edozertarako, deitu eizu hona eta orri honetan argitaratuko dogu.*

*Gure helbide elektronikoa  
aikortxori@yahoo.es da  
(telefonoa 944523447 da).*

*Laukitxo bat 3 euro.*

# BIBA XIBERUA!

## LARRABETZU ZUBEROAGAZ AUZOLANEAN



**Biba Xiberua! entzuten da bazterrotan. Biba Xiberua! oihukatzen dute Larrabetzuko manexek. Izan ere, manexak gara zuberotarrak ez garen euskaldun guztiak. Gurean behintzat badago motiborik Xiberuaren alde aldarri egiteko, Euskal Herriko herrialde txikiena ezagutu eta maitatzeko aitzakia ederra hartu baitute larrabetzuarrek azken hileotan.**

**Udalbiltzak martxan ipinitako Zuberoa garatzen egitasmoagaz batera, Zuberoaren alde lan egiteko taldetxo bat sortu zen urian. Gerora, dena izan da ekimena eta lana. Helburu argi bigaz, dirua batzea eta Zuberoako errealitatea ezagutzera emotea, lanean hasi zen Biba Xiberua! ekimena.**

"Agur Zuberoa, bazter guztietako xokorik ederrena! Agur Atharratze..." Etxahunen kanta hori buruan dugula egin dugu ekialderako bidea herriko hainbat familia, lagun eta kuadrilak. Motxilak erropaz bete eta Bidasoan gaindi Lapurdi eta Behenafarroa ezagutu ditugu lehenengo, Donibane Garazin geldialdixoa egin eta Zuberoan sartzeko.

Mapetan argi azaltzen da gure bazterrik ederrena den Zuberoa, txikitasunean nabarmentzen da, eta lanbro artean ere etxeen dotorezia ikusten dugu furgonetatik. Gu zortzi lagun goaz, baina osotara artalde ederra batu gara honako bidean. Asteburua Maule eta inguruetan eman behar eta ilusioz gainezka daroagu gure furgoneta zuria.

Larrabetzuarrak tartean, ezagutzen dugun taldearen azken obra harro ikusten.

Zapatuan jende gehiago da etortzekoa, 60 baino gehiago batuko gara bertan, eta ez dugu zalaparta handirik egin gura, inor ikaratu barik! Ume asko, eta gogotsu etorri dira. Lastima euria ari duela etengabe. Baina tira, hauen umorea gelditzerik ez dagoenez, moldatuko dira euripeko aterperen baten ere!



Urdiñarben dugu gure lehenengo hitzordua. Izan ere, larrabetzuarren ekimenez, Zuberoako umeek gure antzerki taldea den Kukubiltxoren "Ekidazu" lana ezagutuko dute. Dotorea da Urdiñarbe, herri tiki eta polita. Erreka alboan dauka frontoi handi bat, eta dena da bedarra, dena da ahate eta antzarra, eliza handi bat, eta Herriko Etxearen atzean itzelezko aterpea. Bertan dira Kukubiltxokoak, 40 bat familietako haurrak ilusioz pozten. Adi-adi dira zuberotarrak, astoak musika zelan egiten duten begira!

Nafarroa Behereko Donibane Garazin egin du geldialdia larunbat eguerdiz tropa guztiak. Karriketan gora eta behera, taberna eta ostatuetan, dendak ikusiz, ogia erosi eta Garazi ezagututa bezala Maulerako bidea hartu du larrabetzuarren karabanak. Urdiñarben eta Mauleko kanpineko bungalowetan lo egin behar denez, batzuk eta bestak banatu dira, etxetxoetan jartzeko. Etxetxo ederrak dira benetan Xuberoako hauek, paisaiagaz bat eginez.





Zuberoa txikia da, ekonomikoki ahula, baina kulturak bizirik mantendu du herri hau. Kantuak, maskarada eta pastoralak, hizkuntza... eta irratian Xiberuko botza entzuten dugu. Eta bihar irratia ezagutuko dugu, bertatik bertara, hau ere auzolanean eraikitako irratia delako. Zazpi langile ditu, eta bulego berriak, estudio oso politak. 24 orduz emititzen du Mauletik Zuberoa guztirako eskuaraz, eurek esaten duten moduan. Kantuan, kalakan, honetaz eta besteaz berbetan aritzen dira irratiko animatzaileak. Eta pozik sartuko gara estudio guztiak ikustera, irratia entzun eta Zuberoako berri jasotzera.

Zinka ostatua ere ezagutuko dugu. Taberna bat da, baina zeozer gehiago ere, gazteenek Fermin Muguruzaren kanta baten oihartzuna jasotzen dute Zinka entzutean. Zinka xiberutar euskaldunak batzeko leku bat da, Xiberuko Botzaren azpian, magalean, irriaren lokal barriakaz sortutakoa. Zinkan batzen dira Maule eta



inguruko euskaldunak. Kontzertuak antolatzen dituzte, hitzaldiak... betiko taberna bat da Zinka. Ederra.

Eta frontoiak ikusi ditugu han eta hemen, eta agureak musean, eta arto solo itzelak, eta behi eta ardiak –milaka- landa ezin garbiagoetan. Eta Pirineoa elurrez ikusi dugu ekainean, eta domekan euririk egin ez duenez olgetan egon gara frontoian, eta kantatu egin dugu euskaldunak garelako, bizi gura dugulako. Xiberuara zergatik etorri garen galdetu digu neska gazte batek harrituta. Xiberua maite duzue? bota digu, eta guk baietz erantzun. Orain gehiago, duda barik.

*Testua eta arazkiak: Patxi Gaztelumendi*

**Hainbat ekimen burutu dira Larrabetzun helburu bi hauek lortzeko orduan.**

Dirua batzea helburuetako bat bazen ere, esan daiteke bertatik bertara ezagutzeak -hau da, Zuberoako errealtatera hurbiltzeak- beragaz ekarri duela diru gehiago batzea. Modu horretan hasiera batean planteatutako diruaren bikoitza baino gehiago batu da Larrabetzun. Horretarako funtsezkoak izan dira burutu diren ekitaldiak.


Larrabetzuarrak Biba Xiberua! Ilemadun kamisetak piloa erosi dituzte, eta adin guztietako herritarrak ikusten dira kamisetak gorri, zuri edo grisa jantzita. Era berean Udalbiltzaren egitasmoa azaltzeko eta diru bilketa eta auzolanaren asmoak zeintzuk diren ulertzeko hitzaldi jendetsua egin zen Kultur Etxean.

Maiatzaren 18ko festatxoak be giroa berotu zuen plazan, duda barik. Trikitilariak, Larrabetzuko bertso eskolako bertsolari gazteenak eta Gaztelumendi abesbatza batu ziren zapatu goizez jai giroan. Zuberoaren aldeko bertsoak eta Euskal Herriko kantuek bat egin zuten zeru gainean, txistorra, gaztaia eta Larrabetzuko txakolinaren giroagaz batera. Auzolanak beti dauka beragaz, jana eta edana.

Horretaz gainera, herriko literaturzaleek antolatuta, Ipar Euskal Herriko literaturari buruzko berbaldia be antolatu zen Eskoletako liburutegian, eta han be 20 lagun baino gehiago batu ziren Maiatz aldizkariko Luzien Etxezarretaren inguruan. Iparraldeko kultura, eskara eta giroaren berri izan zen aipatutako hitzaldian.

Diru bilketa ere egin da, hainbat eta hainbat kuadrilak burutu dutena eta hasierako helburuen bikoitza batu da horren ondorioz. Azkenik Zuberoara asteburuko txangoa ere egin zen.

**normigones**



**de zamudio**

**KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA**

- Hormigoi-kamioi ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarrak

Torrelarragoiti ind., 7-g • 48170 Zamudio • Bizkaia  
 Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65  
 E-mail: [hormizamudio@jazzfree.com](mailto:hormizamudio@jazzfree.com)

  
**LIBRERIA  
SONDIKA  
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK    ESKULANAK, E.A.

***JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN***

Fotokopieak, knadermaka, plastifikatuak,  
prentsa, aldizkariak, liburuenak,  
pepergintza eta eskulanak

Mikel Zazale, 2    Tel. / Faxa: 94 453 16 77  
48190 SONDIKA (Bizkaia)

**HARATEGIA**  
**J. ELORRIAGA**

Elizko berezitasuna: bertoko ukela

Donostia, 7 linea: 94 455 89 41 LARRABETZU

# LEZAMatik BILBOra trenbide zaharretik

Testua eta argazkiak: Jose Angel Mentxaka

## 1895eko tragedia.

1895eko uztailaren 7a da. Goizeko 8:30etan Lezamako tren geltokian dozena bat bidaiari "txokolatera"-ra igo dira. Zarata eta ke artean martxan da. Apur bat berandu heldu den batek karra egin eta hartu egin du. Denen aurpegiak harrituta daude. Egia esan, egun batzuk baino ez dira trena inauguratu dela, eta oraindik ez zaie harridura aurpegia kendu. Zamudion eta Derion geldionea, lagun gehiago igotzen dira trenera. Denak trenaz berbetan. Aurrean harro ke beltza zerura botaz "Lezama" lokomotora, atzetik formal-formal 3 bidaiari-kotxe eta furgoi bat.

Derio ostean ezkeraldera biratu du, Asua erreka gurutzatu eta Artxandako maldak hasi da igotzen. Bihurgune handiak, eguzkia atzetik zein aurretik joz. "Igoko deituz honek aldapak?" dio batek, "Bajatu behar ku, eta bultzeu" besteak txantxetan. Denetara 34 lagun. Artxanda gora doaz, apurka-apurka. Fogoneroak nahiko lan dauka ikatz-egurra makinara sartzen.

San Roke ermita parean trena gelditu egin da. Bertan harrobiak dagoz eta trenari beste 3 bagoi lotu dizkiote, 18 tona harri. Berrito martxan eta tunela. Karra doaz leihoak ixtera, baina berandu, "olline" barrura sartu eta soinetik kendu ezinik dabilta, goizean garbirik erara jantzitako soinekoa lohitu zaiola eta, haserre dabil andrea.

Bilbo bistan dutela aldats behera hasi da trena. Begoña pasa eta arin doa trena. Egia esan, arinegi doa. Makinistak nahiko lan du orain galgari tiraka. Trenak pisu gehiegi daroa, ezin eutsi, "kanteran hainbeste harri hartu ez bagendu". Baina jada ezin da ezer egin, geroago eta arinago, Zurbarango tunela igaro ondoren, bidaiariak konturatu eta oihuka hasi dira, batzuk ate eta leihoetatik martxan botatzen dira, handik lasterrera tren osoa karriletik kanpo jausten da, hiru metroko altueratik. Lehen klaseko kotxea atzeko furgoiaren azpian geratu da, beste bagoiak hankaz gora.

Amaitu da bidaia, odola da nagusi. Tragedia kontsumatu da. 13 hildako eta 18 zauritu tren inguruan. Salbatu direnen artean makinista. Fogoneroa kiskalita hil da. Andra batek bere umea leihotik bota du, umea salbatu egin da, ama ez. Egun tristea Txorierrentzat.



"1894-1994. Bilbotik Lezamarako Trenbidearen I. Mendeurrena" liburutik egokituia

Istripua izan zuen "Lezama" lokomotoraren bikia

## 2002an, antzinako trenbidetik

Ehun eta piku urte pasa dira tragedia egunetik. Lezaman trena hartu dugu, ez du ke beltzik botatzen, ez du lehengo zarata egiten, martxan ere ezin da hartu. Leihatilatik lantegiak, pisuak, txaletak, lantegi gehiago ikusgai. 1895 urte hartako pasaiariak ez zuten ia ezer ezagutuko, baserriren bat akaso, Zamudioko eliza eta dorretxea, eta gutxi-gehiago.

Derion trena utzi dugu, oinez jarraitu beharko dugu eta. Gasolindegia ostean bidetxo bat dago ezkerretara, trenbidea gurutzatu eta eskuinetara joz etxe barri batzuk eta baserri zahar bat (Ditxine eta

Baztine) aurkitu ditugu (1). Hortik aurrera oraingo trenbidea, Sondikarantz doana, ezberdina da, geroago egindakoa. Baina guri antzinako bidea interesatzen zaigu.

Baserri aurretik pasa eta ezkerretara (hegoalderantz) doan bidexka bat hartuta, ez da erreza topatzea, baina zuhaitz eta sastraka artean, urez betetako eremu batez egingo dugu topo. Horixe zen trenbidea. Laster landa bat gurutzatu dugu. Orain dela gutxi, bertan zegoen lubakiaren zuloa bete egin dutenez ez da gehiegi nabaritzen, baina belar mota ezberdinak salatzen du "zeozer" zegoela. Landa ostean ez da erraza egiten berrito "bidea" aurkitzea. Baina hortxe dago, albo

bietan zuhaitz handiak, erdian txikiagoak eta sasiak, sasi asko. Kosta egin zaigu bidea zabaltzea, baina ez dauka galtzerik, artez-arteaz doa aurrera, batzuetan lubakia eginez, ingurukoa baino beheago, eta beste batzuetan "betegarriagaz" altuago.

Asua errekaraino heldu gara (2). Burdinazko zubi baten oinarriak ei ziren harrizko hormak aurkitu ditugu. Erreka nahiko zabala da hemen eta gurutzatu ezinean Larrondorantz egin dugu. (Erreka beste aldera joanez gero, beste hormakaz aurkituko ginatke, alde honetakoak baino hobeto kontserbatu direnak, eta trenbidea eskuinetara doala ikusiko dugu oraingo Txorierriko autobidearekin topo egin arte.



(1) "Ditxine" baserri aurrean banatzen dira antzinako trenbidea eta oraingoa



(2) Asua erreka gurutzatzeko zegoen zubiaren aztarnak.



(3) Bidekrutze auzoan bideak luze eta artez jarraitzen du.



(4) Orain dela hamar urte ateratako argazkia. Gaur egun tuneltxoa desagertu egin da.





(5) Errekako uraren pasabidea. Trenbidea goitik doa.



(6) Zuhaitz artean Mendikoetxe baserrira heldu aurretik.



(7) Tunelaren sarrera Txorierri aldetik.




(8) Tunelaren sarrera Bilbo aldetik.

Trenbidearen zati bat honek hondatu du. Inguru guzti honek oihana ematen du gaur egun, eta zubiaren aztarnak Ameriketako inken tenpluenak bezain gaitza aurkitzea.

Larrondotik hegoalderantz joanez, industrigune batzuk pasatuz eta behar den bide asfaltatua hartuz, aitzinako Larrondoko presa famatura heltzen da. Hainbatek ikasiko zuten bertan igeri egiten. Autobide azpitik pasatu, aldapatxoa igo eta Bidekrutze auzora heldu gara (3), Usena ondoan. Aldapatxoa amaitzen den lekuan antzina Bidekrutzeko tren geltokia zegoen. Gaur egun zaila egiten da imajinatzea, hemen lubaki handi bat zegoen, goian harrizko zubi polit bat zuela, eta bertan, kurban, tren geltokia. Badira urte batzuk dena eskonbrokaz bete zutela eta bidea asfaltatu. Goian ezkerretara jo dugu, ekialdera, sarrera partikularrak ebitatuz behera egin ostean ezkerretara doan bide asfaltatu luze eta artezak trenbide zaharrean gaudela diosku.

Txankele baserrira heltzean asfaltoa amaitu egiten da. Saiatu garen arren, sasiek ez digute utzi aurrera egiten eta ezkerretara eginez muinora igo dugu eta Igiliz baserritik berriro errekarara jaitsi. Hemen (4) trenbideak ikusgarria den bihurtunea egiten du eskuinetara, errekarri bidea uzteko tunel antzeko bat zegoen (argazkian orain dela 10 urte) eta gainera altuera gaintzeko harriz eta lurrez egindako itzelezko obra. Baina... Gaur egun ez dugu aurkituko ez tuneltxoa eta ezta gainerakoa, kontatu digutenez orain dela 5 edo

6 urte, urak baltsa handia egin eta dena aurretik eraman zuen. Horregatik errekaraino jaitsi behar izan dugu, berau saltatu eta berriro trenbidera igo. Hemendik aurrera dena da errazago.



Beste bihurtune bat aurkituko dugu beste erreka bat gaintzeko (5), merezi du errekaraino jaitsi eta ura pasatzeko tuneltxoa ikustea.

Aurrerago Artxanda-San Rokeetik Olaraino doan errepidea gurutzatu behar dugu, Mendikoetxe baserri parean (6). Bidea ez galtzeko etxe barri baten goiko aldetik pasatu gara, trenbidea landuta dagoenez solo baten bazterretik joan gara une batez. Ur depositu baten ostean, gaueko lanen aztarnak topatu ditugu bertan, bidea erdi asfaltatuta dago. Ez dago galtzerik. Apur baten geldituta orain dela 100 urte bazter honetatik "txokolatera" igoten imajinatu nahi dugu. Ez da erreza.

Ezkerretara etxe bat utzi eta laster goazen bidea "amaitu" egin zaigu. Norabidea mantenduz mendi barrurantz egin dugu. Basa artean, non zapaltzen dugun kontuz gabiltzan bitartean zulo ilun baten aurrera heldu gara (7). Trenaren antzinako tunelaren ahoan gaude. Linternak atera eta sartu egin gara bertan. Ura eta lokatza dau-den arren ez da gatxa egiten duen hormatxo baten gaineratik ibiltzea. Linternaz argizatuz sabaian denborak egindako estalaktitak ikusi ditugu. Erdetik aurrera ezina egin zaigu jarraitzea, urez beteta dago eta.

Atzera egin eta Artxandara igo ondoren, tunela lehengo Nogaro (Euskal Sena jatetxea gaur egun) azpitik doala konprobatu dugu. Tunelaren irteeraren bila joan gara beste aldera. Granja zahar baten atzean, kostata baina aurkitu dugu (8). Apurka-apurka Begoñaraino doan "Via vieja de Lezama" kalea da jarraitu beharrekoa. 1895eko bidaia amaitu dugu.

Amaitzeko esan beharra dugu ezezaguna bezain ederra den antzinako trenbide hau oso erraz eta kostu gutxigaz paseorako ibilgarri jarri daitekeela. Zati bat oraingo autobideak jan zuen (mapan 2tik 3ra), beste zatia (1etik 2ra) laster desagertu daiteke industrialdea bertatik zabalduko delako. Beste aldetik Bizkaiko Aldundiak bere bidegorri planen barruan Artxanda-Bidekrutze (3tik 7ra) zatia egokitu beharra aipatzen du eta Bilbo-Mungia bidegorri proiektua ere badauka (14 km-ko 9. ardatza izendatzen duena). Ea laster Deriotik Bilbora behintzat oinez edota bizikletaz joateko leku zoragarri hau erabili dezakegun. Bidea egina dago, egokitu behar besterik ez.

**DERIO FRUTADENDA**

Sollube, 8  
Tfnoa: 605 77 12 62  
DERIO

**KIMA**

Landarak  
LANDARE APAINGARRIA

Gizakia 59 - Tel. 94 455 51 00 - Fax 94 455 61 77  
48946 LEZAMA (BIZKAI)

**FONTANERIA DOBARAN**

Berriztatze - lanak:

- Etekbizitzak
- Suteak
- Bainugelak

94 453 3860  
658 75 9084

Milano, 4 - 48150 SONDICA

# Ortuko zaindaria, ortua bera IZURRIEN KONTRAKO NEURRI EKOLOGIKOAK



Azkenengo zenbakian esplikau genduan legez, nekazaritza ekologikoaren munduan sartzen diran askok holan galdetzen dabe “Zer botika erabili zorrien kontra?”. Baina itaunak haxe izan beharko leuke: “Zer egin botikarik bota beharrik ez eukiteko?”

Izaki bizion egoera normala osasun egoera da. Gaixotasunak edo izurriak, normalean ez dira zerutik jausten zorte txarragatik. Ez, desorekea dagola adierazoten dabe.

Esaterako, zorri gehiegi agertzen bada, horrek esan gura dau satsa larregi bota dogula, edo gitxi eginda egon dala, edo landatu edo erein dogunak ez daukala onartzen. Esaterako, letxugak edo zanaorriak ez dabe aguantetan kalabazak beste.

Arazo bat dagoenean, erremedioa topau, bai, baina arazoa zergaitik agertu dan be jakin behar da.

Beraz, nekazaritza ekologikoa orekea lortu gura da, izurriak eta gaixotasunak gitxituteko.

## Gure ortuan zer neurri hartu geinke?

Hesi biziak: orekearen eta ortuaren babesa

Hesi biziak ipintea: arrazoi askogatik dira onuragarriak, batez be bertoko espezieak badira (aurreko zenbakiko artikuluan aitatu ziran espezie horrek). Gure ortua alrbolez inguratuta ez badago, geuk sartu geinkez. Udan edo udagoienean lurra ondo prestatuko dogu, neguan landatzeko. 1-1,5 metroko zabalerako plastiko baltza zabaldu lei lurrean, eta plastikoan egingadako zuloetan landatu.

Plastikoari esker ez dogu eukiko hainbeste arazo bedarrak kentzeko. Hesi honen eragina hirugarren urtetik aurrera edo hasiko gara igertzen. Larraurain bada go bertoko arbolak eta zuhaixkak lor leitekezan mintegia.

## Laguntzaileei laguntzea

Animalia laguntzaileak ezagutu eta babestu behar dira, eta eurentzako txokoak ipini:

- handiak: muskerra, subelandarea, zirauna, zapoa, satitsua, kirikolatza, saguzarra... Horrek guztiok intsektuak, bareak eta osteango mamorro kaltegarriak jaten dituez. Hareentzat adar pilotxuak, harriak, edozelako txokoak itxi behar dira ortuko bazterretan, bertan gerartuteko. Pozu txiki bat prestatzen bada, lagungarri izan leiteke.

- zomorro laguntzaile txikiak : krisopa, marigorria, miridoak, karaboa (kakarraldo mota bat), sirfidoak, kuruminoa, aramuak, akaro akarojaleak. Haretariko askok hesi bizian topetan dabe bizilekua.

- txori insektujaleak: elaiia, epetxa, txiioa, txinboa, kaxkabaltza, amilotzea, buztangorria...

Txorientzako zurezko kabiak hegaldara edo sortaldara begira ipini behar dira, neguan, 2-3 m-ko altueran, arbola bati lotuta, eta katuak ez heltzeko moduan. Habia egiteko, egurra barrutik leundu barik izan beharko da, txorikumeak eusteko.

## Zomorroen kontrako beste erremedioak

Beste aurretiko erremedio pila bat dago: tranpak, landara usanintsuak, bariedade indartsuak aukeratzea, errotazio eta ongarriketaren egitea...Halan be, batzuetan, oreka biologikoa lortu aurretik agertu leitezke plagak edo izurriak. Zer egin orduan?

Badagoz tratamendu edo “botika” ekologikoak. Hona hemen oraingo legediak onartzen ditun batzuk, salgai dagozanen artean:

- Errotenona: insektizida orokorra, landare tropikaletik ataratakoa.
- Bacillus thuringiensisakaz egindako botikak: bakterio honen toxinak tximeleten larbak - beldarrak - akabatzen dituez.
- Sufrea: Oidio (ontto batek sortutako gaixotasuna) eta akaroen kontra

## Badagoz etxean prestau leikezanak be. Esaterako:

- Ortuari gorrinaren, sagarren pikartaduraren edo beste onddoek sortutako gaitzen aurka: landareak indartuko doguz gaitza hasi baino lehen. Horretarako, kilo bat luki buztan (Equisetum, bazter hezeetan topauko doguz) beratua behar da 10 litro uretan. Egun bat pasa ostean, 20 minutuan egosten ipiniko da. Lortutako saldea, hotzitatukoan, 1:5 proportzioan uretan disolbau eta silikato sodikoa gehitu (%1). Horregaz, landareen orriak garoztatu egin behar dira.
- Insektu bigunentzat etxean egindako tratamendua: 30 gramo xaboi (egokienean xaboi baltza edo potasikoa dana) 10 litro uretan, gehi 20 gramo alkohol. Zorrien kontra erabilgarria da.



Testua: Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi)

Kudeaketarako Sozietatea  
Birziklatzeko Zentro Aurreratua



**SOGECAR**

Torrelarragoiti Ind. z/g 48170 Zamudio  
Telefonoa: 944 977 177 - Faxe: 944 522 619

Tratamendu lerroak

- Erabilitako olioak
- Agortutako taladrinak
- Disolbatzaileak
- Automozio

hondakinen kudeaketa osoa

Floristeria Jada

Miguel Ybarra

Editorial Txalaparta



# XXI. MENDEKO PIRATAK

Testua: Alberto Legarreta

## Zer da pirata informatikoa?

Softwarearen legez kanpoko kopia egin eta banatzen dauen pertsona da. Danak onartzen dabe hori halan dala, baina eztabaida asko dagoz. Jende askok uste dau hacker-ak, kracker-ak eta phreaker-ak be piratak direla. Hori onartzen badogu, esangurea zabaltu egiten da. "Legez kanpoko ekintzak ordenadoreak eta informatika erabiliz egiten dauena" izango litzateke definizio antzerako bat.

Sarri erabiltzen dira kopiau, banatu eta saltzen diran musikako CDak. Azkenean, CDa euskarri informatikoa baino ez da, eta ordenagailua erabiltzen da grabetako.

## CD piratak.

Pirateria mota honetan edozein musika CDtan kopiau leike, ordenagailua eta gra-

bagailua erabilia, hori guztia kalitaterik galdu barik. Kaleetan CD saltzen egoten direnak mafiak eukiten ditue atzetik. Gutxi gorabehera, 6 eurotan salduten dabe CD piratea, baina eurei, gehienez, 0,60 euro kostaten jake egitea. Dendetan 18 eurotan saltzen dira jatorrizko CDak. Beraz, asko merkeagoak dira, kalitaterik galdu barik.

Salmenta honeen atzetik mafiak dagoz. CD piratak eurak egiten ditue eta jende behartsua erabiltzen dabe saltzeko. Haren ondorioz, musikariak eta diskoetxeak miloi asko galtzen ditue. Euren eritxiz, Ertzaintzeak ez dau egiten ahal dauen guztia hori amaitzeko. Informazio kanpainak egiten dira jendeak kontzientzia hartzeko, ze gero eta gehiago zabaltzen doa eta arriskuan jarri da musika salmentea.



## HACKER-A, CRACKER-A ETA PHREAKER-A.

Jende askok uste dau piratea eta hacker-a bardinak dirala. Komunikabideetan halan esaten dabe, baina ez, hacker-a pirata mota bat baino ez da, egon be, pirata mota asko dagoz eta. Hona hemen garrantzitsuenak:

**Hacker-a.** Leku guztietan sartu eta sistemaren funtzionamendua ezagutu eta ulertzea gustatzen jako. Jakintasun egarria dauka. Mugarik bako informazioa lortzea da haren helburua. Ez dau minik egin gura eta kode etiko bat dauka.

**Cracker-a.** Gehienbat egiten dituen ekintzak honeek dira:

- Beste sistema informatiko baten sartzea, informazioa ostuteko edo hondamendiak egiteko.
- Programa komertzialak babes barik ixtea.

**Phreaker-a.** Telefonian jakitunak dira. Euren jakintasuna telefonia aztertu eta menderatzeko erabiltzen dabe. Telefonoz doan deitzeko erak topetan ditue.

## Baserritarak on-line

Mendikoik bultzaturiko Mendinet proiektuaren helburua hau da: baserritarrei Internetek eskaintzen dituen abantailak erakustea. Puntua-puntako teknologiaz hornituriko mikrobuz batek Euskal Herriko udalerrri batzuk zeharkatzen ditu, eta hari esker, baserritar batzuek lehen kontaktua izan dute Internetekin. Zerbitzu honek erakusten du tramite batzuk Internet bidez egin daitezkeela; esaterako, esnearen kalitate kontrola, subentzioei buruzko informazioa lortzea edo nekazaritza bulegoarekiko komunikazio zuzena izatea. Ekainaren 11n Derioko nekazaritza eskolan egongo da autobus hori.

## Pentsamendu Unibertsaleko Klasikoen Bildumaren webgunea aurkeztu da.

Aristoteles, Seneka, Kant, Nietzsche, Keynes, David Ricardo, Rotterdamgo Erasmo, Tomas Moro, Darwin, Montaigne, Spinoza, Rousseau, Voltaire, Freud, Kierkegaard..., guztira 68 liburu, oso-osorik, eskuragarri daude Interneten euskaraz eta doan.

Proiektua 1991 urtean hasi zen, eta orain arte paperezko oso argitalpen zainduetan kaleratu diren 68 liburu horiek ipini dituzte sarean (<http://www.klasikoak.com/>).

## Sarean da Arlan Saren webgunea

Lan munduan euskara normalizatzeke urteotan eginiko ahaleginaren emaitzetako bat da webgunea hau. Bertan eraikuntza arloko hainbat produktu daude ikusgai euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz. Euskarazko terminologiaren arloan egindako lana azpimarratu behar da. Arlan SA enpresa txiki bat da, egun Erandio, Sondika eta Mungiako egoitzen artean banatuta. Enpresa 1976an sortu zen eta 4 langile izatetik egun 62 izatera igaro da. Enpresa honek Euskararen Normalizazio Plana du, baita Bai Euskarari "Bidean" ziurtagarria ere.

Hacker-ak ez dau piratatzen jotzen bere burua, izan be, bere asmoa ez dalako min edo kalte egitea. Halan be, haren informazioa argitaratzen danean sortzen dira arazoak. Beti egoten dira legearen muga-muga, Nazio bakoitzak Interneti buruz daukazan legeak ezagutzen ditue eta Interneten legerian dagozan huts edo akatsez baliatzen dira.

Hacker-ak informatika arloko jakituntzat jotzen dogu beti, baina benetako hacker-ak ez dau harro esaten hackerra dala. Cracker-ai txarto deritxee, jendea nahastetan dabelako eta eurei ospe txarra emoten deusielako. Azkenean, pirata mota danak nahastuta dagoz.

**ERREKA**  
BONDO  
ETXEA

Ugureko menua, auzuburuko menu berria, lotza, egurren berrikak, janariak, funtziak berrikak

Atrapa, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tel.: 94 452 14 19  
Fax: 94 452 26 29

**CONSTRUCCIONES ERREKA-ZARRA, S.A.**  
*Román Antonio Ayesta*

Udianaga, I-A Langa  
Tfno.-Fax: 94 648 00 50  
Tfno. móvil: 616 93 75 68

48160 UGAO-MIRABALLES  
(Bizkaia)

**CAFE BAR**  
**BAR FERNAN**

Gorbeia Kalea, 4  
Teléf. 94 452 09 28  
48170 - ZAMUDIO

# UDABARRIKO JOKOAK,

## TXORIERRIKO ESKOLEN ARTEKO OLINPIADAK



Ehundaka gazte batu ziren Udabarroko Jokoen VII. edizioan



**Maiatzaren 31n, Udabarroko Jokoen VII. edizioa egin zan Zamudioko udal kiroldegian. Bertara 2 urtetik 12 bitarteko 600 ikasle baino gehiago batu ziren Txorierriko eskola publiko guztietatik, eguraldi itzelak lagunduta.**

Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko eskoletako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak kirola eta jokoakaz gozatzeko aukera izan dabe aurten be zazpigarren aldiz. Egitaraua goizeko 10etan hasi zan ikurrinaren igoeragaz eta bertso saio batez.

Gero, prestatutako zirkuituetan hainbat jokotan lehiatu ziran ikasleak 12.30ak arte. Ordu horretan kirolen txanda hasi zan eta eskolen arteko futbito eta atletismo txapelketak egin ziran, bakotzak beretarrari animoak emonaz, baina giro ezin hobean. Ordu biak pasatxo zirela, bokaten ordua,

**GAMINIZ**  
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Teknologiko Tel: 94 431 70 25  
Harrera 212 Email: gaminiz@euskaltel.net  
48101 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminizrestaurant.com

**ALDIZKARIAN  
PUBLIZITATEA  
JARRI GURA  
DUENAK DEITU  
BAINO ES DU  
EGIN BEHAR**

**TLFNOA: 94 452 34 47  
686 58 92 38**

**E-MAIL: aikortxori@yahoo.es**

**ZAMUDIO DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**  
INICIATIVA AGROPECUARIA Y GANADERA DE ZAMUDIO DERIO  
HABERROTTURKEN VERBODEN  
Santi Mami, s/n  
Tel: 94 454 18 00  
Fax: 94 454 17 11  
OTRO ZAMUDIO (Kokoa)

**SANTI MAMI**  
ALBARTAKITZA  
Tel: (94) 94 454 17 11  
Ofiz: 94 454 17 11



eta gero danon artean, erabilitako lekua garbitu eta materialak batuz egunari amaiera emon eutsien datorren urtean barriro alkar ikusiko dabelakoan.

Jokoak eskola guztietako Heziketa Fisikoko irakasleak antolatzen dabez. Eskola guztiak euskarearen normalkuntza-  
ren bidean dabilenez eta gure gizarteak be halan eskatzen dauanez, jokoen helburu nagusiak dira euskeraz olgetea eta Txorierriko beste herrietako umeak ezagutzea eta euren arteko harremanak indartzea.

Antolatzaileak eskertu gura izan dabe eguna aurrera atarateko Zamudioko Udaletik, kiroldegitik eta Zamudioko futbol zuzendaritzatik hartu daben laguntza.



## Zamudioko umeentzako Uda 2002 kanpaina martxan

Aurten be, Udalak antolatuta, 5 urtetik 12 bitarteko ume zamudioztarrak Uda 2002 aisialdi kanpaina izango dabe uztailaren 9tik abuztuaren 23ra arte. Egutero ekitaldi asko egingo dira: jokoak, tailerrak, Euskal Herriko bazterrak ezagutzeko urteerak, mendira, hondartzara eta igerilekuetara joan, aterpetxe edo kanpamendu baten egun batzuk pasatea, kirolaz eta zineaz gozatu, moztorro jaietan dantza egitea... Hareek eta beste hainbeste jarduera egiteko aukera izango dabe ondo pasatzeko eta euskeraz, noski. Izena emon gura dauanak, kultur eragilearen bulegora joan edo 944522023 telefonora deitu besterik ez dau.

## Txorierriko arana herri lasterketa gorantz

Ekainaren 2an, Txorierriko Arana herri lasterketaren IX. edizioa egin zan Zamudio eta Derioko Udalek antolatu eta babestuta. Ia 300 lagun batu ziran Derioko eskoletan, ume eta nagusientzako egoazan 4 eta 8 kilometro-tako zirkuitoak egiteko prest. Zamudioko kiroldegian emon jakon amaiera lasterketeari eta bertan korrikalarientzat kirol materiala zozketatu eta freskagarri batzuk hartu ondoren, autobusa izan eben Deriora bueltatzeko. Aipatu beharra dago, inskripzioetan batutako dirua "Mugarik gabe" G.K.E.arentzat izan zala.

## Athletic Zamudion izango da uztailaren 17tik 31ra

Udako oporren ostean, uztailaren 17an hasiko da lanean Athletic. Lezamako instalazioetan obretan ibiliko diranez, Udalaren eta Zamudioko klubaren baimena izan ondoren, aurrendenboraldiko lehen zatian Zamudion izango dabez entrenamenduak 31ra arte, Ingalaterra aldera joan aurretik.



Tietnurreko graduatunak  
Kontakitu lanak  
Fotokopio berrak  
Laseren mugak

Ora kalera, 3. floor. 94 452 28 18 ZAMUDIO



**C.D. HIPICO  
LOS AMIGOS DEL CABALLO  
DE LEZAMA**

Garaioltza, 184 - Tel 94 455 65 11  
**LEZAMA (Bizkaia)**

**IBILALDIAK ZALDIZ  
APOPILOTZA  
MAILA GUZTITAKO IKASTAROAK  
HITZORDUA AURRETIK**

## ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak

Tallera kalera. 5 ZAMUDIO  
Tfnoa: 94 452 12 73



ETXEMENDIARI, 14 - 48150 Sondika  
Tfnoa: 944 551 928

Albaitaritze

**HENAR ORTUONDO**  
ALBAITARIA



**DERIO**

Miliet Henar Ortuondo  
Tfnoa: 94 451 28 71  
ANTEN 2000 (Mozketa)

**LARRIAK 24 orduak.**  
Tfnoa: 94 452 28 71 • Alkorta, 4802

# BEHARGINTZA TXORIERRI

Behargintza Txorierri 2001eko azaroan hasi zen lanean ondorengo helburu hauekin: alde batetik, eskualdeko enplegua, prestakuntza eta enpresak sustatzea, eta bestetik, enpleguarekin zein prestakuntzarekin zerikusia duten eragile guztien erreferente izatea. Elkarte publiko hau irabazi asmorik gabekoa da eta Txorierriko Mankomunitateko sei udalek osatzen dute. Egoitza Sondikan kokatuta dago.



Alejandro Loustaunau da Behargintza Txorierriko zuzendaria

Bertako zuzendari Alejandro Loustaunauren iritziz, ekimen honen helburua hau da: "udal arloan enplegu potentziala bultzatzea eta ustiatzea, eta, horren bidez, lanik gabekoei lan merkatuan sartzen laguntzea, beti ere enplegua lortzeko arazorik gehien duten pertsona eta kolektiboengan arreta handiagoa jarrita".

## **Zein da Behargintza Txorierriren jatorria?**

Egia esan, Txorierriko gune hau ez da Bizkaian dagoen bakarra. Zentro hauek sortu dira ondoren aipatzen diren erakundeen artean eginiko lankidetzak-hitzarmenaren ondorioz. Erakundeak hauek dira: Bizkaiko Foru Aldundia, BBK – Gazte Lanbidean Fundazioa eta EUEDEL.

## **Zelako ezberdintasuna dago Behargintzaren eta beste edozein prestakuntza-zentron artean?**

Behargintzaren helburua ez da bakarrik langileen formazioa hobetzea. Helburua, batez ere, enpleguaren udal gestioa bultzatzea da, bai informazio, prestakuntza eta orientazio arloak bultzatuz eta baita tratu pertsonalizatuaren bidez autoenpleguari zein enpresa txikiari eta ertainen sorkuntzari laguntza emanez ere.

***"Helburua, batez ere, enpleguaren udal gestioa bultzatzea da, bai informazio, prestakuntza eta orientazio arloak bultzatuz"***

## **Zein da jendeak eta enpresek gehien erabiltzen duten zerbitzua?**

Orain arte, jende askok formazio ikastaroetan eman du izena. Beste alde batetik, enpresa berriak sortzeko eskaintzen ditugun laguntzek ere nahiko arrakasta izaten dute, baina oraindik gutxi ezagutzen dituzte Behargintzaren zerbitzu guztiak. Beraz, uste dugu, denbora aurrera joan ahala, gero eta jende gehiago etorriko zaigula laguntza eske.

## **Formazio arloan hainbat ikastaro eskaini dituzue...**

Orain arte, ikastaro hauek egin ditugu: sukaldeko laguntzailea, hoteleko instalazioetako garbiketa eta jantoki eta barrako zerbitzaria. Esan daiteke erabiltzaileak pozik daudela ikastaro horiekin. Orain, beste ikastaro hauek prestatzen gabiltza: enkofratzailea, datuen grabaketarako ikastaroa, mantentze-lanetarako teknikari, web orrien diseinua eta komertzio elektronikoa, C gidabaimenaren lorpena, teknologia berriak, kutxazaina, teleoperadorea, zurgintza eta biltegi-ratze logistika. Gutxi gorabehera, 300-400 orduko ikastaroak dira. Askotan, kutxazain ikastaroaren kasuan bezala, izena ematen duten guztiak kontratatzeko konpromisoa hartzen dugu.

## **Ikastaroa egin ostean, zelako irteerak eskaintzen dizkie Behargintzak erabiltzaileei?**

Ikastaro gehienetan, enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen dugu, beti ere, enpresekin kolaborazio hitzarmenak izanez gero. Beste kasu batzuetan, ikastaroa amaitu bezain laster, lana aurkitzeko konpromiso tinkoa hartzen dugu.

**HACKERS**  
CIBER

- ON LINE JOKOAK
- CHAT-AN
- WEB ORRIALDEAK

MIKEL ZARATE 31000REDO AURREAKI SONDIKA  
TEL.FONO: 941 453 75 76

**GARRAIOLARIA**

Miguel Angel Lokac:

Andra M<sup>o</sup>, 19  
LARRADETZU  
Tlnoa. 941 455 80 20

**VIDEO-CLUB EL TRASGU**

- DVD
- VHS
- PLAY STATION
- JOKOAK
- OPARI SALMENTAK

Iturrigano, 1 • Tel.: 944 710 136  
48150 SONDIKA



# EMPLEGUA AURKITZEKO BESTE AUKERA BAT

## Lan eskaintzarik izan duzue?

Orain arte, jaso ditugun 69 lan eskaintzetara 223 pertsona bidali ditugu geure datu basetik. Haietatik ez dakigu zenbat kontratatu dituzten, baina argi dago enpresek gero eta gehiago eskatzen dituztela gure zerbitzuak, bai ikastaroetarako, bai jendea kontratatzeke. Ondo dakite Behargintzatik irteten diren pertsonak prestakuntza eta kualifikazio ona dutena.

## Zein da ikastaroetan izena ematen dutenen profila?

Normalean, inoiz lanean edo ikasten aritu diren pertsonak etortzen dira gugana. Gehienetan, momenturen batean lana edo ikasketak utzi beharrean aurkitu ondoren, berriro ere ikasteko gogoia duten edo hobeto prestatu nahi duten pertsonak izaten dira, hau da, orokorrean, langabezia dagoen edozein pertsona.

## Aurrera begira, zein da Behargintza Txorierriren helburua?

Txorierrin ia 2.000 enpresa daude, eta eurekin kolaborazioa lortu nahi dugu. Apurka-apurka nahi dugu gu jende gehiagok ezagutzea. Oraindik jende gutxi ezagutzen ditu gure zerbitzuak, eta lanean gailtza hori aldatzeko.

## Denbora gutxi da lanean hasi zinetela, baina zelako balorazioa egingo zenuke?

Oso balorazio ona egiten dugu. 2002ko apirilera arteko datuak batzen dituen txostena egin dugu, eta bertan azaltzen da sistema honen bidez 388 lagunek eman dutela izena. Kontuan hartzen badugu Txorierrin 17.000 lagun inguru bizi dela eta bertako langabezi tasa %5 edo 6koa baino ez dela (Bizkaian %10ekoa da), Behargintzako zerbitzuak 388 lagunek eskatzea ez dago batere txarto.

Testua eta argazkiak: Maite Aranburu



## BEHARGINTZAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

### Enpresei zuzenduriko zerbitzuak

Gure asmoa eskualdeko enpresen garapena sustatzea da, eta ildo hori jarraiki, enpresa handi eta txikiei zerbitzu honen laguntza eskaintzen diegu, euren lana hobeto egiteko, langileen prestakuntza sendotzeko, sektoreari buruzko argibideak emateko edo esperientziak elkarri trukatzeko.

Hori lortzeko, Behargintzak eskualdeko jarduera ekonomikoaren jarraipena egiten du. Horrela, enpresen sarea ezagututa, batik bat, euren beharri-zanak detektatzen ditu, eskualdeko egoera ekonomikoa hobetzeko lagungarri izan daitezkeen jarduerak diagnostikatuz eta garatuz.

Enpresei buruzko datu basea egin ondoren, enpresariet hainbat bide proposatzen dizkiegu laguntzak eta subentzioak lortzeko eta inbertsioak finantzatzeko. Horrekin batera, lanpostuak bete behar dituzten enpresekin bitartekari lanak egiten ditugu lan eskaeraren eta eskaintzaren artean.

Beste alde batetik, langileentzako prestakuntza programak ere errazten ditugu, uste dugulako langileen prestakuntza eta birziklatze lanak behar-beharrezkoak direla enpresak garatzeko.

### Enplegu zerbitzuak

Gure ustez, giza baliabideak –eta enpresak– eskualdeko potentziala dira, eta, gauzak horrela, enplegu bila dabiltzan pertsonen laguntzekotan gaude. Lana topatzeko bidean Behargintza barruan hainbat tresna aurki ditzakegu, hala nola argibide zerbitzua edo Ganguren aretoa. Berau prestakuntza, enplegua, bekak, praktikak eta antzeko gaiak kontsultatzeko gune irekia da. Horrekin batera eskaintzen ditugu laguntza pertsonalizatua eta lanerako orientazioa, lan poltsa (Langairekin etorkizunean jardungo duen zentroa), prestakuntza ikastaroak (lanerako eta kontratazio konpromisoa dutenak) eta enpresetan praktika programak.

### Etorkizuneko enpresariarentzako laguntza

Merkatuaren gaur egungo egoera ikusita, laneko irtenbide berriak topatu behar ditugu, eta horregatik, Behargintzaren asmoa hau da: enpresari bokazioa bultzatzea, sorkuntza sustatzea, enpresari kultura hedatzea eta enpresa ekimen berriak instalatzeko erraztasunak ematea. Ez dugu nahi laguntza edo informazio faltagatik enpresa-idea bakar bat ere alferrik galtzerik.

**Behargintza Txorierri, S.L. - Txorierri Etorbidea, 46**  
**Berreteaga Piliginoa 13 A - 48150 Sondika**  
**Tlfnoa.: 94 453 63 70 - Faxe: 94 453 13 44**  
**E-mail: behargintza@behargintzatxorierrri.com**  
**http: www.behargintzatxorierrri.com**

 **LIBURUDENDA PAPERDENDA**  
**ZAMUDIO**

Donostia Kalea, 5  
Telefono / Fax: 94 462 29 10 - 48100 ZAMUDIO (Bizkaia)

**LEJARRENE**  
**JATETXEA**



GARAIOITZA, 102 - TEL: 455 65 46  
LEZAMA (BIZKAIA)

 **OKINDECIA - BASTALEKUA**

Aretxalde, 64  
Telf.: 94 455 50 36 - 48196 I I / AMA

# Sukaldaritza

## ETXEKO SUKALDARITZA

### MAKAILOA piper eta tomateagaz

#### Osagaiak (4 lagunentzat)

- 8 bakailo xerra
- Oliba olioa
- Gatza
- Berakatz
- Urune

#### Prestatzeko modua

Makailoa beratu 48 orduan.  
Ura 6 bider aldatu.  
Ipini trapu batean eta ondo siketu.  
Urunetan pasau eta pijiidu.  
Kazuela batera 250 gr. inguru tomate natural bota, ondo egin eta nahastau tomate konzentrau txorrostada bategaz.  
Gitxi gorabehera 200 gr piper aparte egin, olio, berakatz atal bi, gatz eta azukre apur bategaz, eta ondo eginda dagoenean nahastau tomateagaz.  
Makailoa bota gainean azala beherantza dauela. 2 edo 3 minutuan irikiten euki.



Mari Tere Onaindia



### Ozpinetako antxoak

#### Osagaiak (4 lagunentzat):

- 16 antxoak
- 3 berakatz ata
- Perrexil adartxo bat
- Ardo olio
- 1º-eko oliba olio birjina
- Gatza

#### Prestatzeko modua

-Antxoak tamaina jakin bat aukeratzea komeni da. Hobe da, beraz, txikia ez bada; ahal dela, erdi-koa edo handia.  
-Dendatik ekarri eta berehala garbitu behar dira.  
-Kutxilo zorrotz bat erabilita, antxoak bakoitza hartu, eta, erditik ebakita, xerra bi egingo ditugu.  
-Kutxiloarekin hegalarren zati bat kenduko diogu, xerrak itxura ederragoa edukitzeko.  
-Behin garbituz gero, ontzi edo kazola batean sartu, eta txorroko ur hotzaren azpian eduki behar dira, harik eta ura guztiz garbi jausi arte.  
-Itsasoko gatza duen ura bota behar da antxoak tapatu arte, eta horrela 10 minutuan edukiko dira, zikinkeria guztia aterarazteko.  
-10 minutu igaro ostean, txorro azpian garbituko ditugu, gatza kentzeko.  
-Antxoei ardo-olioa botako zaie, harik eta tapatu arte. Ontzia kamaran sartuko da 30 minutuan.  
-Ordu erdi igaro ondoren, txorroko ur hotzaren azpian garbituko ditugu antxoak.  
-Antxoei 1º-eko olibaolio birjina botako zaie gainetik, denak estali arte.

- Berakatz txikitua gehituko dugu.
- 30 minutu igaro ostean jateko moduan egongo dira.
- Kamaran utziz gero, hiru edo lau egunean jateko moduan egongo dira.

#### Aurkezteko modua

Antxoak azpil batean ipiniko dira. Oliba, berakatz eta perrexila nahastu eta gainetik botako ditugu.  
Perrexil adarra gainean ipin daiteke, txukunago gelditzeko.





**LAPIKO/s.l.**  
Enkargatutako materialak - Dekorazio  
FOTOGRAFIAK

Gasteiz, 27  
945 404000 - 945 404000

00000000000000000000  
BLOKIA



Aholkularitza Fiskala  
**Jon Vázquez García**  
AKTIBOAK - ENKARGATUAK

Gasteiz, 7. Etzea  
910 500 000 (910 500 000)  
Telef: 910 500 000 - Fax: 910 500 000  
E-mail: jvg@gestionfiscal.es  
CIF: B-9102444

DELANTE DE  
**SUCILLO**  
VITELA  
KIDENEN  
KIDENEN  
BODA HEREDAD UGARTE  
CASA DE VIDA. FEM  
SUPLENDOREK NEN MONTEK  
NEN MONTEK NEN MONTEK  
NEN MONTEK  
NEN MONTEK  
NEN MONTEK

 **Endeja**  
**Ortu-ondo, s.a.**

Ugaldeguren II Ind. 7-2 - Tfn: 944 521 520 - Fax: 944 523 000  
48170 ZAMUDIO  
en el valle de los rios de Guadalupe y de



## LIBURUAK

### "Johanes, Bargotako aztia"

Felix Cariñanos

Euskal Herriko "Harry Potter" dugu Johanes, Bargotako Aztia.

Nafarroako bazterretan gaur egun arte gorde da Johanesen izena, eta zaharrenek oraindik ere haren abenturak eta sorginkeriak kontatzen dituzte. Ahoz aho heldu zaizkigun kontakizun hauei arretaz begiratzuz gero, berehala konturatu-ko gara aztia nolakoa zen bertako-entzat.

### "Bixotx tam!padak"

Oier Gillan

Mikelazuloko 15 lagunek Afrikara egindako bidaiaren istorio da. Oier Gillanek eta beste 14 lagunek Senagalera egin zuten bidai Euskal Herriko kulturaren berri emateko eta hangoa jasotzeko

## DISKOAK

### "Tres lunas "

Mike Oldfield

Musika instrumentalaren jaun ta jabe. New Age estiloko diskoan 14 abestiz osatutako lana aurkezten dau eta musikaz gain PCrako joko interaktiboa.

### "Haatik"

Amaia Zubiria

Usurbilen jaiotako kantariak, bil-duma honetan, kantu zaharrak eta bere egungo egoeraren araberrako abesti berriak aurkezten dauz.

"Haatik"-en hamahiru kantu bildu dauz. Aspaldiko diskoetan arakatu —Haizearekin ateratako haietan lehenik, Pascal Gaignerekin sinatuta-koetan ondoren, Txomin Artolarekin edo bakarka eginikoak ahaztu barik—, berreskuratzeko modukoak ziran abestiak hartu eta beste sei berrigaz osatutako diska da.

# DENBORA PASA

## 6 ezberdintasunak

Irudi bien artean aurkitu 6 ezberdintasun. Zein da Derioko benetako Seminarioa?



## UMOREA

### Jendez gainezka

Badoa tipo bat taberna batera, eta taberna hutsik. Tabernariak kafetera garbitzen ziharduen, mostradorea-ri lepoa emanda, eta gizonak...

— Barkatu, kafetxo bat aterako didazu?

Kamareroak jaramonik ez. Tabernan inor ez, eta...

— Barkatu, kafetxo bat aterako didazu?

Eta, halako batean, kamareroak buelta ematen du, eta

— Aizu, barkatu, baina jende asko dago, txanda itxoin, e?

Tipoa harrituta, inor ez tabernan, eta jende asko dagoela? Berriz ere lepoa emanda 20 minutu, ordu erdi... Jada nazkatuta, hautsontzi bat hartu eta taberna-ria buruan jotzen du. Buelta ematen du tabernariak, eta gizonak esaten dio:

— Et, et, et, et... taberna jendez beteta daukazu, eta niri begiratzen didazu?

## ESAERA ZAHARRA

### NAGUSI ASKOREN ASTOA GOSEAK HIL

Hamar laguneko talde batek txakur bat erosi zuen guztien artean. Hasieran, txandaka ematen zioten jana baina, gero, bati tokatzen zitzaiola eta besteari ahaztu egin zitzaiola, azkenean, zakur gizajoa beste mundura joan zen hemen ez ziotelako janik ematen.

# AGENDA

## LEZAMA

**San Vicente de la Barquerarako irteera.** Uztailaren 7an. Adintsuen Elkarteak antolatuta.

**Mendi irteera: Picos de Europa.** Uztailaren 13 eta 14. Gailur mendi taldeak antolatuta.

**Futbito VII. Txapelketa.** Uztailaren arrastietan (19:00etatik 21:00etara). Bizia kirol taldeak eta udalak antolatuta.

**Mendi irteera: G.R. 11.** Uztailaren 25etik 28ra. Gailur mendi taldeak antolatuta.

**Tenis ikastaroa.** Uztailaren 15etik abuztuaren 31ra arte. Talde murriztuak. Biziak kirol taldeak antolatuta (Amaia Olabarrieta 653.72.83.85)

## ZAMUDIO

**Futbito Txapelketa.** Zamudioko kiroldegian. Uztailaren 1etik 24ra arte.

**Egun bateko irteera, Estibalitz, Agurain eta Zalduondora.** Uztailaren 5ean. Zamudioko Udalak antolatuta.

**Asteburuko irteera, Andorrara.**

Uztailaren 13an eta 14an. Zamudioko Udalak antolatuta.

**Uda 2002 aisialdi-kanpaina.** Zamudion. Uztailaren 9tik abuztuaren 23ra arte.

**Txamba, El Salvadorreko kantautoreak** emanaldia eskainiko du Dorretxean. Uztailak 3an, arratsaldeko 20.30etatik aurrera, dohainik. Zamudioko Gazte Asanbladak antolatuta

## DERIO

**Derioko Santiagoko jaiak**  
Egitaraua 5. Orrialdean

## SONDIKA

**Potxin eta Patxin pailasoen ekitaldia.** Uztailaren 17an, eguerdiko 12.00etan, liburutegiko erakusketa aretoan

**6. Pintura Lehiaketako obra sarituen erakusketa.** Uztailaren 1tik 12ra, liburutegiko erakusketa aretoan

**Vortex taldearen kontzertua.** Uztailaren 4an, gaueko 22.00etan, Gaztetxean

**El Desván taldearen kontzertua.** Uztailaren 18an, gaueko 22.00etan, Gaztetxean

**Javier Mañon-ek "Stand up comedy"** lana antzeztuko du, uztailaren 11n, gaueko 22.00etan, Gaztetxean

## LOIU

**Uztalean herriko udalekua** 6 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzako. Astelehenetik ostiralera, 10,15atik 13,15tara, izango da eta asteko egun bakoitzean ekintza desberdinak egingo dira:

-Astelehenetan: Tailerrak eta kirolak.

-Asteartetan: Tailerrak: Tatuajeak, lepokoak, etab.

-Asteazkenetan: Susperketako ekintzak.

-Ostegunetan: Tailer bereziak monitore adituekin.

-Ostiraletan: Bilbon hamarretan irteten den autobusean Lauroetako Ingurugiro Gelara joango dira umeak eta begiraleak, bertan ekintza desberdinak ospatzeko.

*Aikor! Txorierriko euskaldun guztien aldizkaria izatea gura dogu. Horregaitik geure orriak eskini gura deusueguz zuen gutunak, albisteak eta deiak plazaratzeko. Beraz, bialdu eizuez zeuen mezuak edo gutunak. Gure helbide elektronikoa aikortxori@yahoo.es da. Telefonoa 944523447 da.*



**GARAIOLTZA, S.A.**

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

# LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

**TF.: 94 455 50 19**

Garaioltza auzoa, 128 (behea)  
Lezama (Bizkaia)

VASCOLAC S.L.  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
94 452 23 00 fax

**GAILLA**

Dizkion baliabideak erregaz egunean egunean GAILLA gazta tres  
ATXIXA San Jakobiak eta kinkalak  
BANAKETA DENDETARA, JATEXKEETARA,  
TABERNETARA ETA JATONKETARA  
Hainbat euskal produktuaren distribuzioa:  
edonon moduko errota; txerriak, muntxak, txakurak, gailak





ZAMUDIOZTARRA BAZARA HAUXE  
JAKITEA FALTA JATZU  
EUSKERAZ EGIN EZEAN INORK  
EZ DOTZULA INGO KASU  
GURE HIZKUNTZA BATZEKO  
LANEAN DABITZU  
HIRU KOLORE DE  
ATU







ra  
sortzen dugu



kultu

BILBAO 700 • III MILENIUM



Sormena trultzalzen dugu eta zure eskuelan jarlzen ditugu obra  
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.  
Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.  
Hau da gure kultura.

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk** =